

Hondakinak, bilduak direlarik, ez dira desagertzen.

Bil Ta Garbi sindikatuko eremuan (Garbiki sindikatua barne da), lurperatzea hautatua izan da aterabide gisa. Teknika honek erantzukizunak ditu diru eta ingurumen mailan.



Kopuru gero eta haundiagoan ekoizten ditugun hondakin organikoendako aterabideak xerkatuz, eta Ama-Lurraren mekanismoak begiratzuz, konpostaketa teknika berriak garatu dira.

Gaur egun, teknikek zenbait hilabetez kalitate oneko konposta ekoizten dute.

Baratzerik ez duten, edo konpostagailurik erabiltzen ahal ez duten guziendako, konposta egiteko beste molde bat bada: zizare-konpostaketa !



Nola ibiltzen da? Zer behar dut zizare konpostaketa egiteko ? Nola egin behar dut ? Zenbat balio du ? Nola egin bat eraikitzeke? Nun atxeman ene zizareak? ...

Galdera hauen arrapostu guziak ukanen dituzu Garbiki Sindikatuko Bereizketaren Aholkularia deituz 06.79.34.27.57 zenbakira.

Zizare-konpostaketa



Baratzerik ez duzu konpostagailu baten ezartzeko ?

Soto bat baduzu ? Garaje bat ? Terraza bat ? ... edo sukalde bat ?

Aterabide bat baduzu : zizare-konpostaketa!



Gauzak argi eta garbi erran ditzagun hastapenetik : ZIZARE KONPOSTAKETAK EZ DU USAINTZEN !

Untsa kudeatuz, zizareak trenpu gaitzean dira eta deskonposaketa arazorik gabe egiten da.

Nun ezarri bere zizare konpostagailua ?

Zizare konpostagailua etxe barnean ezartzen ahal da. Gainera, toki hoberena da tenperatura ez delako aldatzen, ondorioz zizareak ongi haziko dira.

Zein dira zizare konpostaketaren eragileak ?

Gai organikoaren deskonposaketa nagusiki 2 zizare motek egiten dute :

Eisenia foetida : "ongarriko zizarea". Gorria horiz edo grisez marrakatuak, deskonposatzen ari diren gaiak atsegin ditu.

Eisenia andrej : "Kaliforniako zizarea » Gorri gorria da, eta gai freskoak nahiago ditu. "zizare gorria » ere deitua da.



Konpostako zizareak tripontziak dira, egunean haiena pizuren erdia edo pizu bera jaten dute!

Lasaitasuna eta ilunpea maite dute. Tenperaturak 20°C ingurukoa izan behar du (aisetasun tenperatura 15°C eta 20°C artean).

Kudeaketa on bat

Zizare konpostaketak erabiltze gutti eskatzen du. So egizu doi doia umitasun heina ona denez eta Karbono / Azota erlazioa zuzen ezazu kartoiaarekin.



Karbono/Azota erlazioa (C/N)

Erlazio hau garrantzitsua da konpostaren bukaerako osajerendako.

Zizare konpostagailuan ezartzen ditugun hondakinak nagusiki etxe hondakin organikoak dira, azota dutenak eta umiak direnak.

Ondorioz ekarpenak orekatu behar dira karbonoa duten /idorrak diren gaiekin, kartoia, papera, orbelak, bezala. Zizareek papera, kartoia izurtua, arroltze kartoia atsegin dituzte.

Barnean gordetzen dira, ugaltzen dira eta hortaz asetzen dira.



Zenbait kontseilu

● Konpostako zizareek hortzik ez dute, ez eman gai sobera gogorrik (zurtoinak, hezurak, xehaketa...) zizare konpostagailuan.

● Zizareek haragi hondakinak eta esnekiak ez dituzte maite.

● Kafe hondarkina ere ekarri (irazkiarekin), alegeraz, konpostako zizareak ezinegonak hartuko ditu.



● Tranpa bat saihestu behar da, eta ez ttipia: zizareek jan dezaketen baino hondakin gehiago eman. Kasu horretan, zure etsai tzarrenak agertuko dira : ulitxak ! Alabainan, hondakin freskoek erakartzen dituzte.

Ekarpen kopurua eta hondakin berdeen eta gaztain koloreen arteko erlazioa zaintzen baduzu (C/N erlazioa), ez duzu halako arazorik ukanen.